

// SIGN //

SIGN rol joko formatua duen dinamika erraza da. Parte hartzaileak ume bilakatuko dira, Nicaraguan ahoz komunikatzeko arazoak zituzten umeak oroituz, eta haien hizkuntza ahalmen gutiak galduko dituzte. Hitz egitea, hala nola keinuen hikuntzan aritzea, guztiz debekatuta geratuko da jolasa hasten den lehen unetik. Gidatutako tarte ezberdinetan zehar, hizkuntza berri bat asmatu eta partekatuko dute, beti irakasle rola hartu duen dinamizatzailerik baten laguntzaz.

Saioa hiru tartetan banatuko da, lehengo, bigarren eta hirugarren klasea. Hauen artean aisirako atsedanak egongo dira.

Gidatutako tarte bakoitzari “klase” deituko diogu. Espazio zabal eta isil batean aulkiak biribilean jarriko dira, denek elkar ondo ikusteko moduan, klaseko ikasleak bailiran, Haien artean irakaslearen rola duen dinamizatzailerik eseriko da. Jolasa erratzeko, irakaslea izango da hitz egiteko gai izango den pertsona bakarra. Gure kasuan bi klase genituen: bi aulki zirkulu ezberdin, bakoitzak esperiantzia ezberdin bat zuela klasean.

Tarteen artean dagoen denborari “atsadenaldi” deituko diogu. Hizkuntza mugak errespetatuz,, ikasleek 5-15 minutu arteko denbora bat izango dute aulkiak dauden espaziotik irten eta euren airera jolas daitezten. Gure kasuan, ikasle denek espazio amankomuna zuten, nahizeta klasean banatuta egon. Ordua denean, irakasleak berriz batu eta klasera bideratuko ditu.

Lehenengo klasea harrera izango da. Irakasleak dinamikaren arauak azalduko ditu eta partehartzaileen dudak argitu, oraindik ahoz. Behin dudarik ez dagoela, klasearekin hasiko da taldea hizkuntza mugak ezarrita. Lehenbizi hausnarketa ariketa azkar bat egingo dute, begiak itxita, euren eskuak sentiarazi ditzaten. Horiek izango dira komunikatzeko bide bakarrak, hortaz, kontziente egin behar dira hauek duten ahalmenarekin, mugitu, keinuak egin eta komunikatzeko. Horren ondoren, ikasle bakoitzak bere izena asmatu beharko du keinu baten bidez. Behin norbaitek berea argi duenean, klaseari erakutsiko dio eta klase osoak bueltan errepikatuko dute, argi geratu zaiela adierazteko. Ikasle guztiek izena dutenean, irakaslearena ahaztu gabe, atsedanaldi labur baterako momentua iritsiko da.

Lehen atsedanaldia laburra izatea komeni da, 5 minutu ingurukoa. Hitz egin ezak frustrazioa sortu dezake eta hitzik gabeko egoera honetan bereziki gogaitu daitezke. Hori sentitzea ariketaren parte den arren, ez da komeni luzatzea. Baliogarri izan daiteke ikasleei jostailu edo jolaserako elementuak eskura uztea, ume rolean sar daitezten umeak bezala jolastuz.

Bigarren klasea da dinamika benetan hasiko den unea. Ikasgelara sartu eta ikasleek banan-banan beren izena erakutsiko dute besteek errepika dezaten, agur modura. Ondoren, irakasleak txartel batzuk banatuko ditu (guk irudiak erabili genituen), hasiera batean landu nahi den hizkuntza aurkezten dutenak. Ikasle bakoitzak txartel bat hartuko du, hori adierazteko keinua pentsatu eta klaseari irakatsiko dio. Bakoitzak gutxienez hitz bat sortu behar du, nahiz

eta taldearen eta denboraren arabera hitz gehiago sortzeko aukera egon daitekeen. Baloratzekoa da, aurkeztutako hitzak gero atsedenaldian errez agertuko diren hitzak izatea.

Bigarren atsedenaldia luzeagoa izango da, 10 minutu ingurukoa, nahi bada apur bat luzeagoa ikasleen jarreraren arabera. Tarte honetan jada badute hiztegi bat osatua komunikatzeko, eta jolastu bitartean normala da hitz berriak agertzea organikoki. Hori dinamikaren puntu garrantzitsua da.

Hirugarren klasea bigarrernaren jarraipena da. Era berdintsuak agurtuko dira ikasleak eta hitz berriak sortuko dira. Kasu honetan, ordea, ikasleen erabakiko dute zer hitz sortu, txartel zurietan errotulagailuz idatzita. Seguruenik, atsedenaldiak komunikatzeko beharrak sortuko ziren, eta orain da momentua behar horiei keinua sortzeko. Behin ikasle bakoitzak gutxienez hitz bat sortu duela, nahiz eta gehiago izan daitezkeen, azken atsedenaldira pasako dira.

Hau da atsedenaldi luzeena, 15 minutu ingurukoa. Jada hiztegi landu bat daukate, beraien beharrak asetu dituzte eta esan beharreko gehienak esateko gai dira orain. Denbora hau komunikazio modu honekin esperimentatu eta gozatzeko unea da.

Amaitzeko, azken klasera pasako dira ikasleak. Beti bezela elkar agurtuko dira eta orain, sortu duten hiztegi osoa erabili beharko dute elkarri mezu konplexuagoak adierazteko. Banaka, euren keinua egingo dute eta beste guztiek pertsona horretaz ser uste duten edo ser sentiarazten dien adierazi beharko dute. Ez dago erantzun txarrik. Batzuk luzeak izango dira, beste batzuk oso laburrak eta, seguruenik, baten bat ulertezina izango da. Taldea oso handia bada agian ez da denbora egongo guztiek iritzia eman dezaten. Hori ere ondo dago.

Behin elkar deskribatuta, agurtzeko unea da eta jolasa amaitzeko ordua. Parte hartzaileek azkenik ahotsa berreskuratuko dute. Interesgarria da une bat hartzea denen artean bizitakoaz hitz egin eta hausnartzeko.

Hipotesia

- Ahozko hizkuntza deuseztatuta, parte hartzaileak keinuzko kontsentuetara iritsi beharko dira, gustatu ala ez. Frustrazioa egon arren, haien komunikatzeko grinak blokeatzea sahiestuko du. Nahiz eta elkar ez ulertu, keinuak egiten jarraituko dute.
- Nahikoa keinu ikasi ostean, laguntzarik gabe hitz berriak sortzen hasiko dira beharraren arabera.
- Nahiz eta bi talde ezberdinetan keinu ezberdinak sortuko diren, batera duten atsedenaldietan hiztegiak bateratuko dituzte, beste hizkuntzekin gertatzen den bezela.

Ondorioak

- Uste zen baino erraztasun gehiagorekin moldatu dira parte hartzaileak hitz gabe komunikatzera. Komunikatzeko gogoia beti da indartsuagoa lotsa edo ezjakintasuna baino.
- Gorputz hizkuntzak (ez hitz, ez keinuzkoak) garrantzia handia izan du komunikatzeko orduan.
- Erabilitako keinu asko aldezturik kontsentsuatzeko keinuak izan dira hasiera batean: “bai”, “ez”, “ondo/ados”, “gero”, “lehen” edo “batera”, adibidez. Guztira, erabilitako keinu guztien erdia baino gehiago horrelakoak izan dira.
- Gure hizkuntza eta kulturarekin ohitua ez zegoen pertsona batek adierazi du benetan zerotik hasia bezala izan dela, baina era berean besteekiko berdintzat sentitu dela.

Potentziala

- Hizkuntza eta kultura ezberdinen artean elkarlan eta berdintasuna sustatzea.
- Nola komunikatzen garen hausnartzea. Hobetu dezakegu gure komunikazioa besteek errezago ulertzeko?
- Ahoz komunikatzeko zailtasunak dituztenen aldeko hausnarketa.

Gehiago jakiteko

- Lotura honetan Signen eskuliburua osorik duzu eskuragarri (adi, ingelesez), sakonean irakurri nahi izatekotan.
- Jolasaren kartak ere badaude, inprimatu nahi izatekotan.
- Eta, kutxa originala erosi nahi baduzu, egileen web orrialdean eskura daukazu.